



BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA BORTZIRIETAN

Urko Ikardo Enparan
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria
2024



AURKIBIDEA

1. BIZTANLERIARI BURUZKO DATU OROKORRAK	3
2. JATORRI ANIZTASUNA ETA IMMIGRAZIOA	6
3. EUSKARAREN EZAGUTZA	10
4. EUSKARAREN JARRAIPENA	16
5. EUSKARAREN ERABILERA	25
6. EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKO JARRERAK	30



1. BIZTANLERIARI BURUZKO DATU

OROKORRAK

BIZTANLERIAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 2001-2023					
Urteak	2001	2011	2016	2019	2023
Biztanleak	8.233	8.670	8.539	8.526	8.537

Iturria: NASTAT, BEMek landuak. Populazioaren bilakaera udalerriko 2001-2023.

- Bortzirietako bilakaera demografikoari dagokionez, aztergai dugun epealdian bi dinamika ezberdin identifikatzen ahal ditugu, **2001etik 2011ra biztanle kopuruak** nabarmen egin zuen **goiti** Bortzirietan, eta, zertxobait jaitsi ondotik, **biztanle kopurua egonkor** mantendu egin da **2016tik 2023ra**.

	BIZTANLEAK HERRIZ HERRI, GENEROAREN ARABERA ETA GUZTIRA 2023				
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira
Arantza	323	% 53,0	286	% 47,0	609
Bera	1.865	% 49,2	1.927	% 50,8	3.792
Etxalar	441	% 52,9	392	% 47,1	833
Igantzi	305	% 53,3	267	% 46,7	572
Lesaka	1.380	% 50,5	1.351	% 49,5	2.731
Bortziriak	4.314	% 50,5	4.223	% 49,5	8.537
Nafarroa	332.086	% 49,4	339.660	% 50,6	671.746

Iturria: NASTAT eta BEMek landuak.

- Generoaren araberako banaketan, erraten ahal da, **zenbat eta herri txikiagoa, orduan eta handiagoa dela gizonezkoan proportzioa**, herri bakarrean da emakumezkoen zenbatekoa gizonezkoena baino altuagoa, Beran hain zuzen ere.



BIZTANLERIAREN BILAKAERA HERRIZ HERRI 2001-2023					
	2001	2011	2023	2001-2011	2011-2023
Arantza	645	644	609	% -0,2	% -5,4
Bera	3.531	3.762	3.792	% 6,5	% 0,8
Etxalar	793	826	833	% 4,2	% 0,8
Igantzi	598	635	572	% 6,2	% -9,9
Lesaka	2.666	2.803	2.731	% 5,1	% -2,6
Bortziriak	8.233	8.670	8.537	% 5,3	% -1,5
Nafarroa	555.877	642.051	671.746	% 15,5	% 4,6

Iturria: NASTAT, BEMek landuak.

- Bortzirietan azken 20 urteotan biztanle kopurua handitu da, 2001etik 2011ra hazkundera izan zen nabarmen, eta 2011tik 2023ra populaziok pixka bat egin zuen beheiti. Herri bakoitzaren joera demografikoa ezberdina izan da. **Epealdi osoa** kontuan hartzen badugu, **biztanleak irabazi** dituzte nabarmen **Berak, Lesakak eta Etxalarrek**, eta **galdu Igantzik eta Arantzak**.

BIZTANLEAK ADIN TALDEKA, HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK 2022								
	0-14		15-24		25-64		65 ≥	
Arantza	93	15,7	48	8,1	312	52,8	138	23,4
Bera	594	15,8	389	10,3	1.965	52,1	823	21,8
Etxalar	134	16,1	76	9,2	419	50,5	201	24,2
Igantzi	80	13,7	67	11,5	303	52,0	133	22,8
Lesaka	388	14,1	280	10,2	1.432	52,0	652	23,7
Bortziriak	1.289	15,1	860	10,1	4.431	52,0	1.947	22,8
Nafarroa	98.488	14,8	72.059	10,9	358.954	54,0	134.616	20,3

Iturria: INE, BEMek landuak. 2023ko datuak ez dira oraindik argitara eman.

- Adin taldeei dagokienez, **haurrak eta gazteak** biztanleriaren **laurdena** dira; **helduen adin taldea da jendetsuena**, biztanleriaren erdia baino gehiago.



PROSPEKZIO DATUAK


- Nafarroako euskara zerbitzuen enkarguz, Aztiker ikerguneak “Nafarroako haurren eta biztanleriaren prospektiba 2023-2036 epealdian” ikerketa egin zuen, eta nabarmentzekoak diren zenbait datu ekarri ditugu hona.
- **Populazioaren hazkundera apala** izanen da Bortzirietan datozen urteotan, aurreikuspena da 2036an 8.654 biztanlera ailegatzea gaurko joerari eusten bazaio.
- Adin taldeei dagokienez, aurreikuspena da **populazioaren zahartze prozesua areagotuko** dela.
- Jaiotzei dagokienez, 2010etik 2022ra nabarmen jaitsi da haurren jaiotze kopurua, 110 jaiotzetik 1.000 emakumeko, 49ra jaiotzera. **2025etik aitzinera pixkanaka hazten hasiko da jaiotzen kopurua**, baina aitzineko hamarkadako mailara ailegatu gabe (aurreikuspena da 2036an 1.000 emakumeko 69 haurrera ailegatzea).



2. JATORRI ANIZTASUNA ETA IMMIGRAZIOA

BIZTANLERIA JAIOTERRIAREN ARABERA BORTZIRIETAN BILAKAERA 2004-2021						
Urteak	2004	2011	2014	2016	2019	2021
Biztanleak	8.324	8.665	8.575	8.539	8.526	8.524
Udalerrian jaioak %	62,8	59,9	59,7	59,7	58,3	57,3
Nafarroako bertze herri	16,5	15,4	15,6	15,4	15,5	15,4
Bertze probintzietan jaioak %	16,4	18,2	17,7	17,5	17,6	18,1
Atzerrian jaioak %	4,3	6,6	7,0	7,4	8,7	9,2

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE), Topagunea eta BEMek landuak.



- Biztanleriaren jatorriari dagokionez, bilakaera izan da **herrian bertan sortutakoen proportzioa jaistea**, Nafarroako bertze herri batean jaioetakoena mantentzea, bertze probintzietan jaioetakoena zertxobait igotzea, eta **atzerrian jaioetakoena bikoiztea**.



	ATZERRIAN JAIKAK 2019-2021					
	Biztanleak		Atzerrian jaioak		Bataz bertzekoa	
	2019	2021	2019	2021	2019	2021
Arantza	597	606	13	22	2,2	3,6
Bera	3.736	3.759	440	483	11,8	12,8
Etxalar	813	828	58	62	7,1	7,5
Igantzi	639	587	52	39	8,1	6,6
Lesaka	2.741	2.744	178	177	6,5	6,5
Bortziriak	8.526	8.524	741	783	8,7	9,2
Nafarroa	654.214	661.537	99.211	108.522	15,2	16,4

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE), NASTAT eta BEMek landuak.

- **Atzerrian jaiotako herritarren zenbatekoa hazi da 2019tik**, Nafarroan bezala, nahiz eta abiadura motelagoan. Bortzirietan atzerrian jaiotako herritarren zenbatekoa Nafarrokoaren bataz bertzekotik beheiti dago.
- Herrien arteko aldeak nabarmenak dira, eta **Beran, atzerrian jaiotako herritarren zenbatekoa Nafarroako bataz bertzekora gehiago hurbiltzen da** (gainerako herrietan % 10etik beheiti dago).

%	ATZERRIAN JAIOTAKO HERRITARRAK KONTINENTEKA 2019-2021							
	Europa		Afrika		Amerika		Asia	
	2019	2021	2019	2021	2019	2021	2019	2021
Arantza	23,1	27,3	7,7	0,0	69,2	72,7	0,0	0,0
Bera	47,3	44,8	2,7	6,6	48,4	47,2	1,6	1,3
Etxalar	60,3	46,8	0,0	0,0	37,9	51,6	1,7	1,6
Igantzi	36,5	51,3	3,8	0,0	59,6	48,7	0,0	0,0
Lesaka	48,9	45,2	4,5	3,4	46,6	50,8	0,0	0,6
Bortziriak	47,5	44,9	3,1	4,8	48,3	49,3	1,1	1,1
Nafarroa	25,7	23,4	21,5	22,5	49,5	50,8	3,2	3,2

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE), eta BEMek landuak.

- Atzerrian jaiotako herritarren jatorriari erreparatzen badiogu, **erdietsua Ameriketatik heldu da**, eta **Europatik heldu direnen zenbatekoak ere pisu handia du**. Gutxi dira atzerrian jaio direnen artean Afrikatik heldu direnak.
- Nafarroako datuekin alderatuta, gehiago dira batez bertze Europatik heldu diren herritarrak, eta gutxiagoa Afrikatik heldu direnak. Ameriketatik heldu direnen zenbatekoa antzekoa da.



ATZERRIAN JAIOTAKOAK BORTZIRIETAN, GENEROA ETA KONTINENTEAK 2021								
	Guztira		Europa		Afrika		Amerika	
Gizonezkoak	364	46,5	186	55,0	18	50,0	157	39,2
Emakumezkoak	419	53,5	152	45,0	18	50,0	244	60,8
Guztira	783	100,0	338	100,0	36	100,0	401	100,0

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

- Jatorriei begiratzen badiegu, bi multzo handi eta pareko ditugu (bere aniztasun guztiarekin), Europatik etorritakoena, eta Ameriketatik etorritakoena. Jatorria eta generoa gurutzatzen baditugu, ondorioa da Europatik gizonezko gehiago heldu dela eta **Ameriketatik nabarmen emakumezko gehiago**.

ATZERRIAN JAIOTAKOAK HERRIZ HERRI, GENEROAREN ARABERA ETA GUZTIRA 2021						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
Arantza	4	1,3	18	6,3	22	3,6
Bera	233	12,6	250	13,1	483	12,8
Etxalar	27	6,2	35	8,9	62	7,5
Igantzi	22	7,0	17	6,2	39	6,6
Lesaka	78	5,6	99	7,3	177	6,5
Bortziriak	364	8,3	419	10,0	783	9,2

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

- Atzerrian jaiotakoen taldeari begiratzen badiogu, bere pisu erlatiboa kontuan hartuta, nabarmenezkoak honako hauek dira: alde batetik, Beran dagoela proportziorik altuena, eta bertzetik, **gehiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino**. Gizonezko eta emakumezkoen zenbatekoen alde hori nabarmenen Arantzan da.



ESPAINIAKO ESTATUTIK KANPO JAIOETAKO BIZTANLEAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA

	2008	2016	2019	2021	2008	2016	2019	2021
Europa guztira	196	324	352	338	49,6	53	47,5	43,2
<i>Europar Batasuna (27)</i>	<i>183</i>	<i>283</i>	<i>305</i>	<i>278</i>	<i>46,3</i>	<i>46,3</i>	<i>41,2</i>	<i>35,5</i>
Errumania	36	109	116	117	9,1	17,8	15,6	14,9
Portugal	24	29	24	24	6,1	4,7	3,2	3,1
Frantziako Estatua	37	78	95	89	9,4	12,7	12,8	11,4
Bulgaria	46	33	23	19	11,6	5,4	3,1	2,4
Alemania	4	6	7	8	1	1	0,9	1,0
Erresuma Batua	5	6	4	4	1,3	1	0,5	0,5
Italia	3	1	3	2	0,8	0,1	0,4	0,3
Eslovakia			12				1,6	0,0
<i>Europar Batasuna ez den Europa</i>	<i>13</i>	<i>35</i>	<i>47</i>	<i>60</i>	<i>3,3</i>	<i>5,7</i>	<i>6,3</i>	<i>7,7</i>
Ukraina	12	10	13	15	3	1,6	1,7	1,9
Errusia		10	4	4	0,6	1,6	0,5	0,5
Moldavia*			30				4	0,0
Afrika guztira	14	9	23	36	3,5	1,4	3,1	4,6
Maroko	8	5	17	31	2	0,8	2,3	4,0
Nigeria	1	2	2	2	0,3	0,3	0,3	0,3
Amerika guztira	182	273	354	401	46,1	44,6	47,8	51,2
Kolonia	7	16	16	21	1,8	2,6	2,1	2,7
Brasil	23	36	46	41	5,8	5,9	6,2	5,2
Bolivia	14	9	8	10	3,5	1,4	1,1	1,3
Ekuador	69	65	67	72	17,5	10,6	9	9,2
Argentina	28	41	62	87	7,1	6,7	8,4	11,1
Txile	2	4	5	4	0,5	0,6	0,7	0,5
Kuba	11	14	11	11	2,8	2,3	1,5	1,4
Peru	8	11	15	14	2	1,8	2,2	1,8
Dominikar Errepublikak	1	10	16	15	0,3	1,6	2,6	1,9
Uruguai	7	12	8	10	1,8	1,9	1,1	1,3
Venezuela		4	8	10	1	0,6	1,1	1,3
Nikaragua*			51				6,9	
Honduras*			11				1,5	
Asia guztira	3	5	8	8	0,8	0,8	1,1	1,0
	395	611	741	783	100	100	100	100

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE), NASTAT, BEMek eta Topaguneak landuak.

*Ezin izan ditugu datuok eskuratu.

- Atzerrian jaiotako herritarren jatorriari erreparatzen badiegu nazionalitateen arabera, **Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasunera hurbilpena** egiten ahal dugu. Berariaz, datuok ez digute kultura eta hizkuntza aniztasun horren irudi osatua ematen, baina balio digute erakusteko gutxienez 12 hizkuntza badirela Bortzirietan, euskaraz eta gaztelaniaz gain.
- Ez ditugu Nikaraguako datuak eskuratu ahal izan, baina gure susmoa da nazionalitate honen presentzia hagitz garrantzitsua dela.



3. EUSKARAREN EZAGUTZA

3.1. METODOLOGIA OHARRAK

- Euskararen ezagutzari buruzko informazioa eskuratzeko, 2001era arte etxez etxeko datu bilketa egiten zen, 2011n lagin bidezko galdeketa egin zen (eta herri mailako datuetan akats tarte handiak zeuden), eta 2021ean erregistroetako datuak erabili ziren, bertzeak bertze, herritarren euskararen ezagutza datuak lortzeko. Horrek zenbait zalantza metodologiko eragiten dizkigu, batez ere ezagutzaren bilakaera aztertzerakoan, modu ezberdinetara bildutako datuak konparatu behar baititugu. 2011ko datuak akats tarteei begiratuta irakurri behar dira eta 2021ekoak ere tentuz irakurriko ditugu, herritar ehuneko baten erregistro bidezko datuak ezin izan direlako lortu, eta horiei dagokien ezagutza maila inferentzia estatistiko bidez kalkulatu baita.

3.2. EUSKARAREN EZAGUTZA


EUSKARAREN EZAGUTZA HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK 2021						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskaldunak	547	2.521	678	498	2.131	6.375
%	91,9	67,1	80,4	85,3	78,3	75,0
Ia-euskaldunak	24	490	57	37	289	897
%	4,0	13,0	6,8	6,3	10,6	10,6
Erdaldunak	24	745	108	49	301	1.227
%	4,0	19,8	12,8	8,4	11,1	14,4
GUZTIRA	595	3.756	843	584	2.721	8.499

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- 2021eko datuen arabera Bortzirietako **herritarren hiru laurden euskaldunak** dira. Eskualde bezala, hirugarren gune soziolinguistikoan kokatzen gara (euskaldunen zenbatekoa %50 eta % 79 artekoa).
- Herrien artean** badira **alde nabarmenak** euskararen ezagutzari dagokionez: Arantzak, Igantzik eta Etxalarrek % 79tik gorako langa gainditzen dute, beraz laugarren gune soziolinguistikoan kokatzen dira (euskaldunen zenbatekoa %79tik goiti), Lesaka hurbil dago atalase horretatik, eta Bera da Bortzirietako batz bertzekotik beheiti gelditzen den bakarra. Aipagarria da herririk handiena dela erdaldunena, jarduera eta zerbitzu gehien dituen, eta hori bada zerbaiten adierazgarri. Neurri txikian, Euskal Herrian orokorrean gertatzen den fenomeno errepikatzen da hemen, zenbat eta hiri handi eta populatuagoa, orduan eta txikiagoa euskaldunen dentsitatea.

- Edonola ere, azpimarratzekoa da Bortzirien tankerako **eskualde euskaldunen garrantzia**: soziolinguistikoki gurearen antzekoak diren eskualdeetan biltzen dira Euskal Herriko biztanleen %18, euskaldunen %38, eta euskararen erabileraren %58 bertan ekoizten da (Goikoetxea, 2023).
- Euskaldunen tipologiari ere erreparatu beharra diogu, zein hizkuntzatan egiten den errazago alegia, horrek ere baldintzatzen baitu euskararen erabilera. Bortzirietarako datu zehatzikez dugunez, hurbilpen gida inkesta soziolinguistikoko datuak erabiliko ditugu (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2021). “Gaitasun erlatiboaren” edo “erabilera erosoaren” kontzeptuak hagitx garrantzitsuak dira, hizkuntza portaera eta euskararen erabilera baldintzatzen duten neurrian. Euskal Herrian, elebidunen artean, gehiago dira erdaraz hobeto moldatzen diren hiztunak euskaraz hobeto moldatzen direnak baino, eta joera hori areagotu da urteen joanean. Hiztun tipologia hori gunehiritar eta erdaldunduetan, eta etxean edo berezko harreman sarean euskararen presentzia urria dutenen artean da nagusi batez ere (Iurrebaso, 2023). Hemendik aitzinera, bideak aurkitu beharko ditugu Bortzirietan euskaldunen erraztasuna eta horren bilakaera zein den aztertzeko, susmoa baitugu gurean ere elebidunen artean erdaraz hobeto moldatzen direnen taldea handitzen ari dela.

Euskaldunen erraztasuna gunehiritar soziolinguistikoen arabera, 2021, Nafarroa (%).



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.

- Hirugarren eta laugarren gunehiritar soziolinguistikoen artean (eta bietak udalerrriak ditugu), alde nabarmena dago euskal elebidunen eta erdal elebidunen zenbatekoen artean. Euskal elebidunen taldea handiena da laugarren gunehiritar soziolinguistikoa eta erdal elebidunen taldea nabarmen handitzen da hirugarren gunehiritar soziolinguistikoa.



%	EUSKARAREN EZAGUTZA BORTZIRIAK		
	BILAKAERA 2001-2021		
	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
2001	81,6	9,9	8,5
2011	75,3	9,8	14,9
2021	75,0	10,6	14,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- Arestian aipatu dugu epealdiaren bilakaera zuhurtziaz irakurri behar dela. Ohar hori eginda, nabarmentzekoa da **2001etik euskararen ezagutzak beheiti** egin duela Bortzirietan, eskualde euskaldun aunitzetan gertatu den bezala. Faktore aunitzen eragina dago atzerakada horren giblean, arrazoi sozio-demografikoak batez ere. Aipagarrienak honako hauek dira: belaunaldi euskaldunen desagertzea, barne zein kanpo migrazio prozesu edo biztanle mugimenduak, hedabideen eta mundu digitalaren pisua, euskararen erabilera lan munduan, faktore ideologikoak euskararen beharraren eta prestigioaren inguruan, eta abar.
- 2011 eta 2021 arteko alderaketa are eta zuhurtzia gehiagorekin egin beharra dago, azkeneko bi datu bilketek aldaketa metodologikoak eta akats tarteak ekarri baitituzte. **Euskararen ezagutza egonkor** mantendu dela erraten ahal da.

%	EUSKALDUNAK HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK					
	BILAKAERA 1991-2021					
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
1991	99,3	70,6	90,4	95,1	80,1	80,0
2001	98,8	72,8	92,4	91,9	83,4	81,6
2011	96,5	65,2	76,2	91,1	79,6	75,3
2021	91,9	67,1	80,4	85,3	78,3	75,0

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- Arantzan eta Igantzin, herririk euskaldunenetan, beheranzko joerak ez du etenik izan epealdi osoan. Berako kasuan eta Etxalarko kasuan igoera izan da, nahiz eta 2011eko datuek zalantzak eragiten dizkiguten akats tarteak direla eta, batez ere Etxalarko kasuan.



EUSKALDUNAK ETA ADIN TALDEAK BORTZIRIAK BILAKAERA 1986-2021						
	1986	1991	1996	2001	2011	2021
2-14	69,5	85,0	87,8	93,8	92,7	95,7
15-24	67,4	76,7	82,3	98,3	89,2	90,0
25-64	74,9	76,4	71,5	75,2	70,1	66,8
65etik gora	86,7	85,9	84,9	78,8	74,5	75,7

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- Adin taldeei erreparatzen badiegu, bistakoa da **belaunaldi gazteak** direla **euskaldunenak**, eta hori datu baikorra da. Ordea, adierazgarria da **helduen** adin talde zabal horrekin dagoen aldea; jendetsuena, eta eragin zein botere sozial handiena duen **adin taldea da erdaldunena**.
- Adin taldeen bilakaerari epe luzeko begirada ezarrita (2001etik), haurren kasuan bakarrik egin du goiti euskararen ezagutzak, gainerako adin taldeetan beheiti egin du, nabarmen helduenean, baita gazteenean ere. Begirada 2011tik hona paratuta, jaitsiera soilik helduen adin taldean gertatu da.

EUSKALDUNAK ETA ADIN TALDEAK, HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK 2021						
%	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
2-14	98,8	91,8	98,3	100,0	99,1	95,7
15-24	97,8	85,6	91,4	97,1	92,9	90,0
25-64	87,2	58,2	70,9	75,9	71,2	66,8
65etik gora	97,1	64,9	63,8	91,9	68,2	75,7

Iturria: NASTAT, BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- Herri guztietan errepikatzen da Bortzirietarako deskribatu dugun joera orokorra; haurrena da adin talderik euskaldunena, eta helduena erdaldunena, Etxalarren eta Lesakan izan ezik.



%	EUSKARAREN EZAGUTZA BORTZIRIAK SEXUA 2021		
	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Gizon	75,2	10,6	14,2
Emakume	74,8	10,5	14,7

Iturria: NASTAT, BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

Nola irakurri: Bortzirietako gizonen % 75,2 euskaldunak dira.

- **Generoaren arabera, ez dago alde adierazgarririk** euskararen ezagutzari dagokionez.

%	EUSKARAREN EZAGUTZA ETA SEXUA, HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK 2021											
	ARANTZA		BERA		ETXALAR		IGANTZI		LESAKA		GUZTIRA	
SEXUA	GIZ	EMA	GIZ	EMA	GIZ	EMA	GIZ	EMA	GIZ	EMA	GIZ	EMA
Euskaldunak	53,6	46,4	49,0	51,0	52,2	47,8	52,2	47,8	51,2	48,8	50,7	49,3
Ia-euskaldunak	50,0	50,0	48,6	51,4	61,4	38,6	62,2	37,8	51,6	48,4	50,9	49,1
Erdaldunak	33,3	66,7	51,4	48,6	50,0	50,0	55,1	44,9	46,2	53,8	49,8	50,2

Iturria: NASTAT eta BEMek landuak.

Nola irakurri: Arantzako erdaldunen % 66,7 emakumezkoak dira.

- Euskaldunen generoari dagokionez ez dago alde handirik, herri txikietan zertxobait gehiago dira gizonezkoak euskaldunen artean. Erdaldunen artean, badira aldeak herri batetik bertzera, batzuetan gehiago dira gizonezkoak, eta bertzeetan emakumezkoak. Deigarria da Arantzako erdaldunen profil feminizatua.

%	EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA 2021					
	EUSKALDUNAK					
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	BORTZIRIAK
Nafarroan	95,8	84,3	92,4	92,6	90,9	88,9
Bertze erk.	85,9	50,0	70,3	76,5	55,7	56,9
Atzerrian	22,7	11,2	19,6	20,5	16,1	13,8

Iturria: NASTAT, UEMA eta BEMek landuak.

Nola irakurri: Atzerrian jaioetako Bortziritarren % 13,8 dira euskaldunak.

- Nabarmen, **estatutik kanpo jaioetako herritarren artean gutxiengo bat da euskalduna**. Bertze erkidegoren batean jaioetako herritarren artean euskararen ezagutza handiagoa da (hor sartzen dira Euskal Herriko Hegoaldeko bertze herrialdeetan sortutako herritarrak zein estatutik heldu direnak). Bortzirietan, Nafarroan sortutako herritarren gehiengo zabala euskalduna da. Beraz, **jatorriak badu harremanik euskararen ezagutzarekin**.
- Herriz herriko datuei erreparatzen badiegu, zenbat eta herri euskaldunagoa, orduan eta handiagoa da estatutik kanpo eta bertze erkideko batean sortutakoen euskararen ezagutza. Horrek erran nahi du arnasgune izaerak baduela bere eragina herritarren euskalduntzean, alegia **errazago euskalduntzen direla herririk euskaldunenetan kanpotik heldu diren herritar erdaldunak**.



- Interesgarria izanen litzateke jakitea zein den atzerrian eta bertze erkidego batean jaiotako herritarren euskararen ezagutza adin taldearen arabera. Gure susmoa da, zenbat eta gazteago, orduan eta euskaldunagoak izanen direla, datu orokorren logikarekin bat. Datu horiek NASTATi eskatu bagenizkion ere, herritarren datu pertsonalen babesa argudiatuz ez zizkiguten eskuratu.




4. EUSKARAREN JARRAIPENA

BELAUNALDIZ BELAUNALDI

4.1. LEHEN HIZKUNTZA EDO FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

%	LEHEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA			
	EUSKARA	GAZTELANIA	BIAK	BERTZERIK
2001	73,5	18,7	6,9	0,5
2011	61,0	22,8	11,7	4,5


Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak. Erantzunik gabeak kenduta.



- 2011ra arteko zentsu bidezko datu bilketa edo inkestetan lehen hizkuntzari buruzko datuak biltzen ziren. 2021ean, ordea, ez zen galdetu guraso edo zaintzaileengandik jasotako hizkuntza edo hizkuntzei buruz, beraz, adierazgarria den datu baten galera izan dugu. **2001etik 2011ra** lehen hizkuntza euskara zuzenen zenbatekoak beheiti egin zuen, eta goiti gaztelania eta bi hizkuntzak lehen hizkuntza zituztenenak. **Hamarkada horretan familia bidezko transmisioan euskarak atzeraka** egin zuen Bortzirietan. Azpimarratzekoa da hamarkada horretan euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzen zenbatekoak nabarmen egin zuela goiti; ordura arte immigrazioa batez ere estatu barnekoa bazen ere, ordutik aitzinera estatutik kanpoko immigrazioa hazten hasi zen, baita Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasuna ere. Horrek erronka berriak erantsi zizkion euskararen biziberritze prozesuari.



- Inkesta soziolinguistikoan informazio hori galdetzen da eta galdetuko da, garrantzitsua baita hizkuntzaren egoeraren azterketarako. Inkestak ematen digun informazioarekin **hurbilpen bat** egiten ahal dugu, 3. eta 4. gune soziolinguistikoari buruzko datuak jasotzen baitira, gure udalerriak bi tipologia horietakoak izaki euskararen ezagutzari dagokionez.




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.

- 2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskararen ezagutza % 79 baino gehiagokoa denean, batzuetan bertan, euskara lehen hizkuntza dute herritarren hiru laurden inguruk. Euskara eta gaztelania biak ere familian jaso dutenekin, % 80tik gorakoa da zenbatekoa. 3. gune soziolinguistikoan euskara lehen hizkuntza izan dutenak nabarmen gutxiago dira. Familian bi hizkuntzak jaso dituztenen zenbatekoak zertxobait egiten du gora 3. gune soziolinguistikoan. 4. gune soziolinguistikoan ditugu Lesaka doi-doi, eta Arantza, Etxalar eta Igantzi bete-betean, eta 3. gune soziolinguistikoan Bera.
- Hurrengo neurketan erne egon beharra dugu, ea familia bidezko transmisioari eusten zaion, edo euskara lehen hizkuntza izanen ez duten herritarren zenbatekoak gora egingen ote duen. Gure susmoa da joera soziodemografikoak direla eta, euskara lehen hizkuntzetako bat izanen ez duten herritarrak gero eta gehiago izanen direla Bortzirietan datozen urteotan, eta beraz hiztun eta familia tipologia horiei egokitutako esku hartzeak beharko ditugula.



4.2. IRAKASKUNTZA BIDEZKO TRANSMISIOA




Iturria: Bortzirietako ikastetxeak. BEM.

- Bortzirietako ikastetxeetan matrikulatutako 10 ikasletik 9k D ereduan ikasten dute (1.165 ikasle). A ereduan ikasten du ikasleen % 6 (80 ikasle), eta B ereduan ari dira ia % 3 (34 ikasle). Alde handiarekin, **Bortzirietako haurren gehiengoak D ereduan egiten ditu ikasketak.**
- Azpimarratu behar da irailean bildutako datuak direla hauek guziak. Jakin badakigu gero eta ikasle gehiago ari direla iristen behin ikasturtea hasita. **Pentsatzekoa da kasu aunitzetan euskararen ezagutzarik gabe etorriko direla, eta A eredura joko dutela.** Dena den, bada gehiago lantzea eta aztertzea merezi lukeen gertaera.




- Ikastereduen bilakaerari dagokionez, honatx grafika:




Iturria: Bortzirietako ikastetxeak, BEM.


- Beraz, bilakaera orokorrari egindako lehen begirada honetan, **D ereduaren hazkundera agerikoa da, eta A ereduare, kopuruak txikiak izanagatik, pixkanaka hazten ari da.** Bertzalde, bilakaerak B ereduaren gainbehera argi erakusten du.



- Haur Hezkuntzaren kasuan, datuak biltzen hasiz geroztik **D ereduak** hartzen ditu matrikulen % 80 baino gehiago, eta, gainera, bilakaera goranzkoa izan da. 2007-2008 ikasturteaz geroztik **% 90aren langa gaintitu du**.



- Berako egoerari erreparatuko diogu arretaz. Izan ere, Bera Bortzirietako herririk handiena da, eta gainerako herrietan ez bezala, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan D, B eta A ereduak eskaintzen dira. Herrien arteko konparaketa eginez gero, bada alde nabarmena: Beran **haur hezkuntzako ikasleen ia % 9 ari da A ereduan** (10 ikasle guztira), **gainerako herrietan, berriz, haur hezkuntzako ikasleen % 100 D ereduan matrikulatuta dago.**



Iturria: Bortzirietako ikasketxeak, BEM.

- **Lehen hezkuntzan, are eta handiagoak dira A eta B ereduen zenbatekoak Beran, oro har bi eredu hauek D ereduarekiko aunitzez ere ikasle gutxiago hartzen badute ere.** Ikasleen ia % 14 ari da A ereduan (39 guztira). Soziolinguistikoki hain desberdinak ez diren herrien artean bada alde adierazgarriak (gainerako herrietan ez da A eta B eredurik eskaintzen).



ATZERRIAN JAIOTAKO IKASLEEN ZENBATEKOA IKASTETXEZ IKASTETXE %
BILAKAERA 2016-2021

IKASTETXEA	2016	2017	2018	2019	2020	2021	IKASTEREDUAK
Arantzako Herri Eskola I.P.	1,4	-	-	-	-	-	D
Jesusen Bihotza Ikastetxea	20,9	28,2	35,4	39,7	40,7	40,5	A eta B
Labiaga Ikastola	1,1	0,5	1,0	1,0	1,6	1,1	D
Ricardo Baroja I.P.	1,0	-	2,0	3,8	4,0	3,1	D
Toki Ona Institutua	6,1	7,3	5,7	6,6	5,7	7,1	A, B eta D
Landagain I.P.	1,2	2,5	2,5	1,3	1,2	1,3	D
Igantzik I.P.	1,8	-	-	-	-	-	D
Irain I.P.	4,5	3,8	2,9	3,6	2,2	3,5	D
Tantirumairu Ikastola	1,9	2,1	2,1	2,1	2,1	2,4	D

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

- Atzerrian jaiotako haurren zenbatekoen datuak eskuratu zizkigun hezkuntza departamentuak, baina ez ikastereduen arabera multzokatuta. Ikastetxe gehienetan atzerrian jaiotako umeen zenbatekoak apalak dira, **Jesusen Bihotzan** izan ezik. Gainera, 2016tik aitzinera joera gorakorra izan da, eta **2021ean eskolako haurren % 40,5 atzerrian jaiotakoa zen. Berako haur eta lehen hezkuntzako bertze bi ikastetxeekin alderatuta, aldea hagitx handia da.**



4.3. HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA


MATRIKULAZIOAREN BILAKAERA BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIAN

	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024
A1.1	14	20	5	10	7	7	11	18	7
A1.2		9	10	9	7	7		6	6
A2.1			7	14	6	7	11	0	0
A2.2					11	5		12	8
B1	7	8	8	7	6	5	8	7	11
B2	7	7	8	9	9	7	7	9	5
ALFA/B2	5	4	6						
C1	5	9		11		10	4	13	9
ONLINE	7	11	10	10	6	8	8	10	7
GUZTIRA	45	68	54	70	52	56	49	75	53
ETORRI BERRIAK*					29	19	19	31	20

Iturria: Bortzirietako Euskaltegia, BEMek landuak.

* Etorri berriak: Euskal Herritik kanpo sortuak.

MATRIKULAZIOAREN BILAKAERA BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIAN 2010-2024



- Azken hamarkadan Bortzirietako euskaltegia urtero matrikulatu diren ikasleen kopuruan izan da gorabeherarik, baina gehieneko eta gutxieneko langak zehaztu xamar daude. **2016-2017 ikasturtean mankomunitateak dirulaguntza sistema berria** abiatu zuen, doakotasuna helburu, eta horrek izanen zuen eraginik ordura arteko beheranzko joera etetearekin, eta zenbait urtetan izan diren matrikula kopuru altuekin.
- Adierazgarria da euskara ikasleen artean **Euskal Herritik kanpo sortutakoek zenbatekoa**, datu hori jasotzen hasi ginenetik **ez da sekula herenetik jaitsi**. Gainera, ikasle horien artean jatorri eta ibilbide aniztasuna nabarmentzekoak dira.



EUSKARAREN ERABILERA

5.1. ETXEKO ERABILERA

%	ETXEAN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 2011			
	EUSKARA	GAZTELANIA	BIAK	BERTZERIK
2001	57,5	20,1	21,8	0,6
2011	48,5	30,7	17,2	3,6

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI) eta BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.

- 2011ra arteko zentsu bidezko datu bilketa edo inkestetan etxeko hizkuntzari buruzko datuak biltzen ziren. 2021ean, ordea, ez zen galdetu etxean gehien erabiltzen zen hizkuntzari buruz, beraz, adierazgarria den datu baten galera izan dugu. **2001etik 2011ra** beheiti egin zuen etxeko euskararen erabilerak eta gaztelaniarenak. **Hamarkada horretan euskararen etxeko erabilerak atzeraka** egin zuen Bortzirietan. Azpimarratzekoa da euskara eta gaztelania ez diren bertze hizkuntza batzuek egin zutela euren agerpena Bortzirietako etxeko giroan; ordura arte immigrazioa batez ere estatu barnekoa bazen ere, ordutik aitzinera estatutik kanpoko immigrazioa hazten hasi zen, baita Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasuna ere. Horrek erronka berriak erantsi zizkien euskararen biziberritze prozesuari.
- Bortzirietako etxeetan euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen den jakitea hagitx garrantzitsua da; adierazle horretan zenbat eta sendoago, orduan eta osasuntsuago euskararen egoera, eta orduan eta arnaguneago herri edo eskualdea. Kale erabileraren datuarekin batera euskararen egoera diagnostikatzeko ezinbertzeko zaigu.



5.2. KALEKO ERABILERA

%	KALE ERABILERA 2021					
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	BORTZIRIAK
EUSKARAZ	94,3	45,4	84,8	81,4	85,1	76,4
GAZTELANIAZ	5,7	54,4	15,2	18,3	14,9	23,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra eta UEMA. BEMek landuak.

- Bortz herrien artean alde nabarmena dago erabilerari dagokionez. Arantzakoa da erabilera maila altuena, eta Berakoa baxuena (herri handiena).

%	KALE ERABILERA 2021, EUSKARAZ					
	2-14	15-24	25-39	40-64	>64	GUZTIRA
ARANTZA	100,0	100,0	100,0	87,1	89,4	94,3
BERA	62,4	40,3	40,8	30,6	24,8	45,4
ETXALAR	98,0	89,3	77,1	61,1	52,6	84,8
IGANTZI	94,6	87,8	76,9	67,6	72,2	81,4
LESAKA	96,0	97,0	88,5	63,2	61,0	85,1
BORTZIRIAK	89,8	72,0	77,7	58,5	59,4	76,4

Iturria: Soziolinguistika Klusterra eta UEMA. BEMek landuak.

- Alde nabarmena dago haurren eta gazteen kale erabileraren, eta, helduen eta adinekoen kale erabileraren artean. Bertze modu batera errateko, **haurrak, gazteak, eta heldu gazteak ertainetik goiti daude nabarmen**, eta helduak eta adinekoak ertainetik beheiti.
- Arreta berezia merezi du heldu gazteen taldeak. Orain arte ez ditugu datuok bildu, eta ikusteko dago joera zein izanen den. Adin tarte honi dagokion datua gazteenaren gainetik egoteak zer pentsatua ematen du. Iragartzen ahal du galera bat, alderantziz, erakusten ahal du heldu gazteen artean euskara gehiago egiten dela (akaso guraso izateko garaian daudelako eta sozializazioaren arloak ekartzen du nabarmen goiti euskararen erabilera).



EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 2006-2021								
%	2006	2008	2010	2011	2013	2016	2019	2021
Euskaraz	59	68	66	61	58	65	68	76

Iturria: BEM, Soziolinguistika Klusterra eta UEMA. BEMek landuak.

- 2008tik 2019ra euskararen kale erabileraren bilakaerak bi norabide marraztu ditu, hasieran beherakorra (2013ra arte), eta hortik aitzinera gorakorra.
- 2021eko datua orain arteko emaitzetan onenetakoa izaki, izaten ahal da gorako joera baten adierazle. Hala ere, tentuz hartu beharrekoa da, 2021eko laginetan ikusten ditugu eta desoreka batzuk, eta akaso horregatik egoera dena baino baikorragoa agertu zaigu (Etxalar, Igantzi, eta batez ere Lesaka gain ordezkaturata daude, Berarekin alderatuta).

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADIN TALDEKA BORTZIRIETAN 2013-2019 %				
	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
2013	79	76	46	44
2016	83	66	56	47
2019	84	74	63	50
2021	90	72	67	59

Iturriak:

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2013. BEM.


Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2016. Soziolinguistika Klusterra eta BEM.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2021 Soziolinguistika Klusterra eta UEMA.

- **Haurrak dira neurketaz neurketa euskara gehien erabiltzen dutenak.** Helduen erabilera mailak goiti egin du 2013tik, baita adinekoenak ere. Gazteen artean ez dago joera argirik, bilakaera gorabeheratsuagoa da.


11. grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Bortziriak, 2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.

- **Haurrak euren artean** solastatzen direnean oraindik eta **altuagoa da erabilera. Haurrak presente ez diren elkarrizketetan erabilera dezente apaltzen da.** Euskara transmisioarekin lotzen da, helduek hurrei (gurasoek seme-alabei) euskaraz egiten diete oro har, eta haurren artean euskaraz egitea da araua.

7. grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. Bortziriak, 2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Bortziriak 2019. Soziolinguistika Klusterra.




- Generoari dagokionez, orain arteko neurketetan ez da aldagai adierazgarria izan, baina **2019ko datuetan bazen alde ohargarrik emakumezkoen eta gizonezkoen kale erabilera mailaren artean.**

5.3. EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA

- Inkesta soziolinguistikoak euskararen erabileraren inguruko datu aitortuak biltzen ditu. Hemen datu orokorra **hurbilpen** bezala erabiliko dugu, gune soziolinguistikoaren arabera Nafarroako datuak gura ekariz.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera (2016 – 2021), gune soziolinguistikoaren arabera, Nafarroa (%).



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.


- 2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskararen ezagutza % 79 baino gehiagokoa denean batz bertz, euskaraz batez ere aritzen direnen zenbatekoak % 80 gaitzen du, eta ez da alde nabarmenik sumatu 2016tik. 3. gune soziolinguistikoan, berriz, erabilera datua apalagoa da. 4. gune soziolinguistikoan ditugu Lesaka doi-doi, Arantza, Etxalar eta Igantzi bete bete, eta 3. gune soziolinguistikoan Bera.
- 2021ean, Arantzako, Etxalarko, Igantziko eta Lesakako kale erabilerako datuak Nafarroako 4. gune soziolinguistikoan batez ere euskaraz aritzen diren herritarren zenbatekoarekin alderatzen badugu, erraten ahal dugu badela nolabaiteko koherentzia edo norabide bereko datuak direla.
- 2021ean, Berako kale erabilerako datuak Nafarroako 3. gune Soziolinguistikoan batez ere euskaraz aritzen diren herritarren zenbatekoarekin alderatzen badugu, erraten ahal dugu erabilera aitortuaren emaitzak kaleko erabilerarenak baina altuagoak direla.

6. EUSKARAREN ERABILERA

SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

- Bortzirietan euskararen inguruko jarrerei buruz berariaz ikerketa gutxi egin da. Zenbait ikerketa berezitan zuzenean edo zeharka galdetu da jarreraren inguruan, baina informazio sakon eta eguneratu premia dugu; datozen urteotan hutsune horri erantzuten saiatuko gara.
- Berriro ere, **hurbilpen** bezala erabiliko ditugu Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak, eremu soziolinguistikoen arabera.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak
gune soziolinguistikoaren arabera, 2021, Nafarroa (%).



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. Nafarroako Foru Komunitatea.

- Zenbat eta euskaldunagoa herria edo ingurune soziolinguistikoa, orduan eta sendagoa euskararen erabilera sustatzearen aldeko iritzia. Euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarreraren ez dago apenas alderik 3. eta 4. guneen artean. 4. gune soziolinguistikoa ditugu Lesaka doi-doi, eta Arantza, Etxalar eta Igantzi bete-betean, eta 3. gune soziolinguistikoa Bera.